

6.a

2.
ITURRI-
FITXA

BIZIKLETA


izendegia



Maizenik, objektu teknikoa hainbat elementuz egina izanen da. Moltzo horrek **lotura** bat osatuko du.

Objektua osatzen duten elementuen zerrenda **izendegia** deituko da. Usaian, 4 zutabe ikus daiteke halako taula batean :

- **marka (Mk)** 1. zutabean, zatia **osoko** marrazkian aurkitzeko
- **elementuen kopurua (Kop)** 2. zutabean
- **izendapena** 3. zutabean, hots piezaren izena
- **oharrak** 4. zutabean, hala nola kolorea, materiala...



15	1	Gibeleko faroa edo argia	
14	1	Antzineko faroa edo argia	
13	2	Pedala edo ointokia	altzairu herdoilgaitza
12	1	Koadroa	altzairua
11	1	Urkila	
10	36	Erradioak	
9	1	Haguna	aluminioa
8	1	Gurpil-azala edo pneumatikoa	
7	1	Pinoiak	28 hortzetik 14 hortzera
6	1	Platera	1, 2 edo 3 platera
5	1	Aldagailua	
4	1	Katea	kate-maila
3	1	Jarleku edo zela	larrua edo plastikoa
2	2	Balaztak	kautxuzko balazta-zapatak
1	1	Eskuleku edo gidoina	altzairua
Mk	Kop	Izendapena	Oharrak

katea	Plateraren eta pinoiaren arteko lotura, txirrindulariak pedalen gainean egiten duen indarra gurpil eragileari transmititzeko balio duena.
pinoia	Higidura transmititzeko sistema bateko gurpil horzdun txikia, antzeko beste batekin edo katea batekin engranatzeko duena.
balaztak	Bizikletaren abiadura moteltzeko edota erabat gelditzeko erabiltzen den mekanismoa. Bizikletaren gurpil bakoitzeko dispositibo bat izaten da, eta arrastaren heldulekua sakatzerakoan balazta-zapatak tenkatu egiten dira, hagonarekin kontaktuan jartzeraino, honen kontra presio eginez.
zela	Bizikletaren jarlekua, forma triangeluarrekoa, motelgailuz hornitua eta hodi doigarri baten gainean muntatua, txirrindulariaren gorputzaren pisua hartzen duena.
haguna	Bizikleta-gurpilaren metalezko egitura zirkular zurruna, pneumatikoaren euskarri dena, normalean abatzari erradioen bidez lotua egoten ohi dena.
gidoina	Bizikletaren aurreko aldean kokatua dagoen hodi edo tutuak eta helduleku bikoitzak osatzen duten multzoa, eskuak bertan jarriz bizikleta gidatzeko eta bere norabidea nahi den bezala eramateko.
gibeleko faroa	Gauaz ikusia ahal izateko elementu argiduna.
koadroa	Trapezio baten antzera kokatutako tubo barrutik huts eta elkarrekin soldatutako multzo batek osatzen duen armazoi metalikoa, bizikletaren gainerako osagaien lotura edo euskarri gisa funtzionatzen duena.
urkila	Gurpil bat bizikletaren koadroari lotzen dion multzoa, bi hodi paraleloz osatua.
platera	Bizikleta baten katearekin engranatzeko duen gurpil horzdun handia, pedalek mugitua, pedal-ardatzaren indar mekanikoa edo higidura atzeko gurpilari transmititzen diona. Ohizkoenak 53koa eta 42koa izaten dira.
aldagailua	Katea pinoiak eta platerak dauzkaten hortzen gainean desplazazten duen mekanismoa, katea behar bezala tenkatua mantenduz bitartean, era horretan abiadura-erlaziorik edo biderketarik egokiena lortu ahal izateko.
erradioak	Bizikletan, abatz hagonarekin lotzen duten hagatxo metalikoetako bakoitza.
pedala	Oinarekin eraginez, bizikletari mugimendua ematea posible egiten duten bi piezetako bakoitza, pedalierraren albo banatan kokatua.
pneumatikoa	Toru-formako elementu elastikoa, kautxuzko azala eta bere barruan, kamera baten barnean normalean, airea presiopean sartuta daramana, eta hagon bati akoplatuta ohizko bizikletaren edo bizikleta estandarraren gurpila osatzen duena.
aitzineko faroa	Gauaz bidea ikusteko erabiliko den elementu argiduna.